


MANIFESTU KOMUNISTA

K. Marx & F. Engels

1.- Historia: klaseen arteko borroka (26. or)

- Antzinako Erroman: patrizioak, zaldunak, plebeioak, esklaboak.
- Erdi Aroan: jaunak, menpekoak, maisuak, ofizialak, jopuak.
- Gizarte burgesean: burgesia eta proletarioa.



2.- Burgesiaren sorrera (27. or)

- Antolakuntza feudalean **burges txikiak** gailentzen hasi (merkatu berriak, garraiobide berriak, industrian makinaria berriak).
- Burges txikiei burges aberatsek kendu zieten lekua: **burges modernoek**.
- Mundu-mailako merkatua sortu; horrekin batera **burgesia hazi**.
- Burgesia pixkanaka **politikan** lekua egiten joan da, azkenean Estatu modernoan botere osoaz jabetu da.
 - ❖ *Frantziar Iraultzari esker lortu zuen boterea Frantzian, esaterako.*
 - ❖ *Azpiegitura ekonomikoan nagusi denak kontrolatzen du gainegitura (politika).*




3.- Kapitalismoaren ezaugarriak (27. or)

- Pertsonaren **duintasuna trukerako balio** bihurtu du.
- **Merkataritzarako askatasuna** da askatasun bakarra. Ondorioz: **lehia etengabea**.
- **Esplotazio** zuzen, ageriko eta basatia jarri du.
- Denak soldatapeko, **dena diruaren menpeko** (apaiza, legelaria, poeta, familia-harremanak...).
- Burgesiak **etengabe garatu** behar ditu ekoizpen tresnak eta ekoizpen harremanak.

Kapitalismoaren ezaugarria da aldaketa eta segurtasunik eza (ekoizpenak lekuz aldatzea, gizarte-harremanak mugitzea...). Bertan behera geratzen dira gizarte-harreman tradizionalak, ohiturak.

❖ *Dena da “erabili eta bota”. Eten-gabe sortzen, etengabe berritzen ari den sistema da Kapitalismoa; hori da bere elikagaia. Ondorioak: kontsumismoa, indibidualismoa, langabezia...*



Kapitalismoaren ezaugarriak (28. or)

- **Izaera kosmopolita** eman dio ekoizpenari eta kontsumoari, mundu mailako bihurtuz.
 - Lehengaiak beste herrialdeetatik ekarri; bertako produktuak kanpoko herrialdeetan kontsumitu. Nazioen arteko dependentzia.
 - Ekoizpen intelektuala ere globalizatzen.
 - Nazio guztiak ari da biltzen kapitalismoaren katea; mundu guztia ari da burges bihurtzen.
- **Hiriak handituz** doaz (baserria hiriaren menpe; nekazaritza herrialdeak herrialde burgesen menpe).
- **Zentralizazio politikoa**: populazioa bildu, ekoizteko tresnak zentralizatu, jabegoa esku gutxi batzuetan jarri.
- Denbora gutxian **aurrerapen ugari** (makineria, trenbideak, ibaien kanalizazioa...).



❖ *Kapitalismoa mundua jaten, gastatzen ari da pixkanaka. Ondorioak: kutsadura, ekologia, lehengaien ustiapena...*

4.- Feudalismoa burgesia, burgesiatik proletaria (28-29. or)

- **Feudalismoaren baretik sortu zen burgesia:** jabegoaren harreman feudalak (ekoizpen harremanak) ez zetozen bat nagusitzen ari ziren ekoizpen indarrekin; oztopo ziren ekoizpenarentzat. **Lehia askea** jarri zen horien partez.
- Ekoizpen indar eta ekoizpen harreman burgesek, eurek **kontrolatzen ez duten egoera** eragin dute. Industria eta merkataritza **burgesiaren nagusitasunaren aurka** ari da.
- **Super-ekoizpena:**
 - Ekoizpen modu burgesak berezkoak ditu krisiak.
 - Gizarteak baliabide gehiegi ditu, industria eta merkataritza handiegiak dira.
 - Burgesiak produktuak eta ekoizteko indarrak suntsitzen ditu orduan; merkatu berriak konkistatzen ditu eta zaharrak hobeto esplotatu.
 - Arazoa handiagotzen du: **krisi gogorrakoak eta okerrakoak** etorriko dira.
- **Burgesiak feudalismoa eraisteko erabilitako armak berak dira orain burgesiaren aurka ari direnak.**

5.- Proletalgoa (29. or)

- Burgesiak berari heriotza ekarriko dioten armak sortzeaz gain, **arma horiek erabiliko dituzten gizakiak** ere sortu ditu: langile modernoak, proletalgoak.
- Bizi ahal izateko lan egin behar dute langileek, **beren burua saltzera** behartuta daude.
- Makineria berriak nortasuna kendu dio langileari: **makineriaren gehigarri bat** da.
- Erabat mekanikoa da egin beharreko lana, beraz, **soldata oso baxuak** jasotzen dituzte.
- Fabriketan pilatuta, industriaren soldaduak; burgesen eta makinaren **esklabo**.
- Indar gutxiagoko lanetan **emakumeak eta haurrak** ere sartu dituzte; denak lanerako tresna (emakumeei eta hurrei are gutxiago ordaintzen zaie).
- **Erdiko klase txikia ere proletarioen taldean** (industriadun txikiak, merkatariak). Ezin dute kapitalista handiekin lehiatu.



6.- Proletalgoaren borroka (30. or)

1. fasea:

- Zuzenean esplotatzen dituen burgesaren aurka hasieran: ekoizpen harremanaren aurka. Baita ekoizteko tresnen aurka ere (makinak hautsi, fabrikak erre).
- Proletalgoak **ez du oraindik benetako etsaiaren aurka egiten**, beren etsaien aurka baizik (burges txikien aurka, lurjabe handien aurka...). Proletalgoa ez dago elkartuta.

2. fasea:

- **Industriaren garapenak proletalgoa elkartuarazten du**: denek baldintza txarrak, denek soldata baxuak, bizi-egoera gero eta okerragoa... baina langileen artean komunikatzeko gaitasun gehiago (garraiobideak).
- Proletalgoak elkartu eta lehenengo matxinadak egiten dituzte. Gero eta batasun handiagoa; toki ezberdinetako langileak harremanetan. Borroka egin ahal izateko **politikoki elkartu** behar dute.
- Burgesiaren ahultasunez baliatuta eskubide batzuk lortu. Burgesiak ere borrokan jarraitzen du (aristokraziaren aurka, beste burgesen aurka); proletalgoaren laguntza behar du. Politikan lekua egiten hasten zaio proletalgoari.

Proletalgoaren borroka (30-31. or)

3. fasea:

- Klaseen arteko borrokaren egoera gogorrean, burgesiaren zati bat proletalgoari gehitzen zaio (industriadun txikiak, merkatari txikiak, eskulangileak...)
 - Baina erdiko klase hori ez da benetan iraultzailea; existentzia salbatu nahi du. Kontserbadoreak, **erreakzionarioak** dira.
 - Beste batzuk ere, azpiproletarioak, bere burua saltzeko prest egongo da, txantajeak onartuko ditu.
- Proletarioak dira benetako iraultzaileak: **gainegitura aldatu behar du, jabetza pribatua deuseztatu, goiko klaseak ezabatu.**
- Historian, orain arteko iraultzak gutxiengo batek egin ditu. Proletalgoaren iraultza **gehiengoaren iraultza** da, gehiengoarentzat egina.
- Proletarioen borrokak nazio barruan egingo dira lehenik, bertako burgesen aurka.
- Borroka hau ezinbestekoa da: burgesiaren existentzia ez dator bat gizartearekin.

